

Durangaldea



- Otxandio
- Durango
- Ermua
- Elorrio

Otxandio

Fundazio-urtea: 1236 eta 1254 bitartean

Fundatzailea: Diego Lopez de Haro III.a

Forua: Logroñoko Forua

Pribilegioen hartzaileak: Basailuak

Kokapena: Gasteiztik kostalderako bidean

Kokalekua: Urkiola ibaiaren ondoko lautadan

Altuera: 559 m

Biztanleak (2001): 1.017



Otxandio hiribildua Durangaldean dago, Bizkaiaren hego-mendebaldean, Aramaio eta Legutio udalerrri arabarrekin muga eginez. Nahiko leku garaia da (inguruko batez besteko altuera 500 bat metro da), eta oso gune garrantzitsua Durangaldetik Arabarako igarobide naturalean. Durangaldetik Gasteizerako joan-etorrietan Urkiolakoa mendatea, Otxandio eta Legutio (azken hori Arabako herria) zeharkatu behar dira. Gaur egun, bide horretan ez da trafiko handirik ibiltzen, baina Erdi Aroan Bizkaia eta penintsularen barnealdea lotzen zituen pasabide nagusietako bat zen, Balmaseda (Enkarterrietatik) eta Urduñarekin (Bizkaia nuklearretik) batera.

Urkiola ibaia da Otxandioko lurren ardatza. Izen bereko herri-gunean sortu ondoren, Bizkaiko ibai gehienek ez bezala, Bizkaiko Golkorantz joan beharrean, Ebro-rako bidea hartzen du. Ibaiadarretako bat Oleta erreka da, laburra bezain garrantzi-

tsua, eta Otxandion bertan isurtzen dizkio urak Urkiolari.

Otxandio, Bizkaiko Itsasoaren eta Mediterraneoko isurialdearen artean zegoela, funtsezko ardatza eta lotunea izan zen Bizkaiko eta penintsularen barnealdeko lurren arteko harremanetan, geroago zehaztasun handiagoz ikusiko dugun moduan.

Jaurerri osoa bezala, hariztiz, pagadiz eta gaztainadiz josita zegoen Otxandio. Baina laster hasi ziren denak ustiatzen, eta azkenik, agortu egin zituzten. Burdinolen jarduera jotzen da errudun nagusitzat. Gaur egun, oster, hazkunde azkarreko koniferoak (batez ere Monterreyko pinua) daude haien lekuan, industriaren beharrei erantzuteko.

Hiribilduaren fundazioa eta Erdi Aroko bilakaera

Otxandioko hiri-gutuna galduta dagoen arren, bi urteren arteko tarte laburrean kokatu ohi da fundazio-data. Diego Lopez

Otxandio

de Haro V.ak honakoa dio 1304an hiribilduko usadioak eta foruak berresteko gutunean: *“Sepan quantos esta carta vieren como yo Diego Lopez de haro señor de Vizcaya por hazer bien e merced a los mis basallos de ochandiano tengo por bien e otorgoles este fuero e los usos que obieron en el tiempo de don diego mi padre”*¹. Haren aita Diego Lopez de Haro III.a 1236tik 1254ra izan zenez Bizkaiko Jauna, bi urte horien artean sortuko zuten Durangaldeko hiribildu hau.

Otxandio Bizkaian hiribilduak sortzeko prozesuaren lehen aldi fundatu zutela uste du Garcia de Cortarrak. 1199tik (orduan sortu zuten Balmaseda) 1287ra (Lanestosa fundatu zuten urtea), penintsularen barnealdetik kostalderako iraganbide naturaletan zeuden guneak hiribildu edo forupeko herri-gune bihurtu zituzten². Horrelaxe fundatu zituzten Balmaseda (Kadagoaren ibilguan), Lanestosa (Los Tornos mendatean), Urduña (Nerbioiren ibilguan) eta Otxandio (Urkiolaren ibilguan). Bermeo dugu salbuespen bakarra, kostaldean kokatu baitzuten, itsasoz heldutako eta bidalitako produktuak bideratzeko. Fundazio horiek guztiek lotura zuzen-zuzena dute Mediterraneoaren eta, batetik, penintsularen barnealdearen eta, bestetik, Europaren kostalde atlantikoaren arteko lotune izateagatik Jaurreriak XII. mendetik lortu zuen nagusitasunarekin.

Otxandiarrek, Bizkaiko gainerako hiribilduetakoek bezala, Logroñoeko Forua eskuratu zuten hiri-gutunaren bidez, inguruetako landa-eremuetatik bereizteko eta

ekonomia eta merkataritza garatzeko oinarriak finkatzeko. Logroñoeko Foruari eta Bizkaiairen eta Arabaren artean zuen kokapen estrategikoari esker, Jaurreriko komunikazio-bide garrantzitsua izan zen, eta inguruetako merkataritza kontrolatzea lortu zuen. Jaurrerira Gaztelako garia ekartzen zuten, eta burdina esportatu, baina baziren hedadura handiagoko joan-etorriak ere:


Gaztelaren eta Europako kostalde atlantikoaren arteko salerosketak.

Mugimendu handi horren ondorioz, mandazainak, artisauak, ostalariak eta, oro har, nola edo hala merkataritzari lotutako lanbideak sortu ziren hiribilduan.


Logroñoeko Foruaren abantailekin batera, lurralde-barrutia ere emango zioten, jakina, baina hiri-gutuna galdua dagoenez, ez dakigu zehatz-zehatz zein lur hartu zituen. Jakin badakigu Erdi Aroan Aramaioko Kondearekin, hiribilduaren ekialdean zeuden lur arabarren jabearekin,

auzi luzea izan zutela El Limitado izeneko 600 bat hektareako eremuagatik.

Ez da erraza eremu hori hasieratik, hiri-gutuna jaso zutenetik, hiribilduarena zen ala, kondearen jabetza izanik, eskuratzen saiatu ziren jakitea. Litekeena da laborantzarako lurrak, animalientzako larreak eta etxe eta burdinoletarako egurra lortzeko premiak eraginda ahalegintzea eremu hori eskuratzen, eta ondorioz, horregatik sortuko zen aipatu dugun auzia³. Ez ditugu gatazkaren inguruko gorabeherak ezagutzen, baina Elvira de Leiva Andreak,



Beatriz Arizaga eta Sergio Martínez



EL LIMITADOREN KOKAPENA
OTXANDIOKO BARRUTIAN

Alfontso Muxika eta Butroe Aramaioko Jaunaren amak, 1457an Otxandioko hiribilduarekin sinatutako adostasun-eskrituran El Limitadore jabetza kondeari ematen zaio, eta usufuktua, berriz, hiribilduari. Beraz, otxandiarrei lur horiek lantzeko, larreak erabiltzeko eta mendiak ustiatzeko eskubidea aitortu zieten. Mendietan, ordea, ezin zuten etxerik edo etxolarik eraiki kondearen baimenik gabe eta ustiatzeko ere mugak zituzten.

Hiribilduak nahikoa lur gutxi zituenez, hitzarmen horri esker konpondu egin zituen, neurri batean behintzat, leku-arazokak, baina ez behin betiko. Batetik, ez zen erraza usufuktuaren eta Kondearen jabetzaren ingurukoak betearaztea, eta bestetik, bilauek bertako baso aberatsetan esku hartu nahi zuten. Jarrera horien emaitzak etengabeko liskar eta gatazkak izan ziren.

Arazoak arazo, biztanleria eta ekonomi jarduerak garatzeko oinarri ziren aldetik,


hiribilduek garrantzi handia lortu zuten Jaurrerian, eta leinuek ere udal-bizitzan parte hartu nahi izan zuten, jakina. Otxandiora oso leinu garrantzitsuak joan ziren bizitzera, adibidez: Abendañotarrak eta Otxandiotarrak. Dorretxe bana eraiki zuten hiribildu barruan. Baina leinuen etorreraren ondorioz, XIV eta XV. mendeetan Bizkaiko lurraldea astindu zuten bando-kideen arteko borroketan murgildu ziren halabarrez hiribilduko biztanleak. Leinuen arteko borrokak ez ezik (esate baterako, Abendañotarren eta Muxikatarren artekoak), jauntxoek eta hiribilduaren arteko liskarrak ere egokitu zitzaizkien. 1415ean, Joan de Abendañok erre egin zuen hiribildua, eta handik gutxira, Gomez Gonzalez de Butroe eta Muxika bere arerioak, arpilatu. Geroxeago, Otxandiotarrek, Abendañotarren nagusikeriaz gogaituta, dorretxea goitik behera erre zuten, eta ondorioz, jabeek setiatuta eduki zuen hiribildua⁴. Otxandio landa-eremuetako biztanleak leinu handien mendekotasunetik libratzeko sortu zuten arren, herritarrak azkenean, erabat gogoz kontra eta inolako interesik gabe, haien gatazketan murgildu ziren. Leinuen gatazkak, gainera, oztopoak baino ez ziren ekonomia eta gizartea garatzeko.

Hiribilduaren egitura fisikoa Erdi Aroan

Bizkaiko Jaurreriko hiribilduetako planoen artean Otxandiokoa da bideari zorrotzen lotu zitzaiona, fundazio-helburuarekin eta Erdi Aroko mendeetan izandako garapenarekin bat etorritik.

Erdi Aroan, Durangon egiten zuten bat inguruko hiribilduetatik (Bilbo, Bermeo, Gernika, Lekeitio, Ondarroa, Markina, Ermua eta Elorriotik) zetozen merkataritza-bide garrantzitsuek. Gainera, Ermutik eta Ondarroatik Mutrikuko eta Eibarko merkataritza ere bideratzen zen, hein batean. Durangaldeko hiriburua, beraz, funtsezko komunikazio-ardatz bihurtu zen Jaurrerian, beharbada garrantzitsuena (Bilbore-

Otxandio



kin batera). Baina Durango utzi ondoren, salgaiak Otxandiotik eramaten zituzten penintsularen barnealderantz. Izan ere, Otxandio, Arabaren ondoan eta erraz zeharkatzeko moduko goi-lautadan kokatua, oso leku aproposa zen igarobidea izateko. Durangotik Otxandiorako bidean, Urkiolako gaina (713 m) zen oztopo nagusia; handik aurrera, bideak pixkana-pixkana beherantz egiten zuen Otxandiora (500 m inguruko altueran) heldu arte. Hiribildua hegoaldeetik utzi eta, irtenune txiki bat gainditu ondoren, Legutiora heltzen ziren, eta handik, inolako arazorik gabe, Arabako hiriburura.

Horrela, bada, hain merkataritza-bide garrantzitsua izanik, normala da hiribil-

duaren planoak komunikazio-beharren arabera moldatzea, eta bideari jarraituz, forma luzexka ematea. Kale nagusiaren (Artekale) eta hari itsatsitako beste bi kale txikiagoren (Udaletxe eta Carnecería) inguruan eraiki zuten Otxandio. Erdi Aroko kale nagusia Artekale zen, eta hala da gaur egun ere. Lehen aipatu dugun bidea bertatik igarotzen zen. Kale nagusiaren eta itsatsitako beste bien artean kantoietan estuak sortu zituzten, etxe-uharteen eremuak mugatzeko. Etxe-uharte bakoitzean etxe-ilara bakarra zegoen, eta horregatik, trinkotasun handia zuten⁶.

Bizkaiko hiribildu gehienetan harresi exentua eraiki bazuten ere, Otxandion beste irtenbide bat aukeratu zuten. Gernika-

rrek bezala, Otxandioko bizilagunek etxeen atzeko aldea babes-elementutzat erabiltzea erabaki zuten: horretarako, ezin zuten baorik izan edo, izatekotan, nahikoa goian egon behar zuten. Gaztelurik edo gotorlekurik ere ez zegoenez, Erdi Aroko ohiturari jarraituz, Santa Marina eliza, hiribilduaren mutur batean zegoena, erabili zuten zeregin horretarako. Kanpandorreko horma batean dagoen gezi-leihoak egiaztatu egiten du hipotesi hori. Bestetik, XVII. mendera arte gotorretxea egon zen plaza ondoan, eta seguruenez, hiribilduko babes-sistema indartzeko erabiliko zuten⁷.



Beatriz Arizaga eta Sergio Martínez

OTXANDION BAT EGITEN ZUTEN ERDI AROKO BIDEAK

Plaza dugu hiri-elementurik garrantzitsuenetakoa, Jaurerriko gainerako hiribil-

duetakoak baino askoz handiagoa baita. Ustez, Artekalera eta Santa Marina elizara ematen duen gunere ireki hori Erdi Arotik dago hor. Ziur aski, merkataritzari lotutako joan-etorriak oso ugariak zirelako egingo zuten halako plaza handia. XVIII eta XIX. mendeetan egindako aldaketa nabarmenak gorabehera, ez dirudi alde handirik dagoenik egungo plazaren eta Erdi Arokoaren artean.

Eraikinik adierazgarriena, berriz, Santa Marina eliza da, plaza alderantz kokatua. Hasieran eraikin gotikoa zen, baina XVI. mendean handitu egin behar izan zuten XV. mendearen amaieratik biztanleria asko hazita zegoelako.

Elizan ez ezik, hiribilduan ere ez zegoen behar beste leku, populazioaren gorakadaren ondorioz. Beharrak eraginda, XV. mendearen amaieran handitu egin zuten hiribildua: Artekale kalearen bi aldeak zabaltzeko eta Uribarrena (iparraldean) eta Urigoiena (hegoaldean) errebalak sortu zituzten, hiribilduaren ezaugarri bereizgarriak batera aldatu gabe, hau da, igarobide eta pertsona eta salgaien trafikoari lotutako gunere izateari utzi gabe.

Erdi Aroko etxeei buruz ez dakigu ia ezer, ez baita inolako arrastorik geratu. Dorretxeak ere galduta daude. Ohikoa den moduan, etxeen orubeak ditugu lekuko bakarrak. Orube gotikoak dira nagusi: estuak eta luzexkak dira, mehelinean artean daude eta kale aldera fatxada txikia dute. Orube asko orduan bezalaxe daude, baina beste askotan aldaketak egin zituzten XVIII. mendean, zabalagoak eta erosoagoak izan zitezten. Erdi Aroko etxeek kale aldeko fatxadetan bi bako zituzten: bat etxean sartzeko eta bestea merkataritzan aritzen zirenen etxeetan, bezeroekin egoteko.

Oharrak

1. Ikus Labayru: *Historia General del Señorío de Bizcaya*. III. liburukia. Bilbo, 1897. Jatorrizko argitalpenaren faksimilea. La Gran Enciclopedia Vasca argitaletxea. Bilbo, 1968. 417. or.
2. Ikus García de Cortázar, J.Á.: "Las villas vizcaínas como formas ordenadoras del poblamiento y la población". *Las formas del poblamiento en el Señorío de Vizcaya durante la Edad Media*. Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo, 1978. 89-90. orr.
3. Ikus Martínez Rueda, F.: *Otxandio. Historia y Patrimonio Monumental*. Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo, 1992. 20-22. orr.
4. Gertaera horiei guztiei buruz gehiago jakiteko, ikus Martínez Rueda, F.: *Otxandio. Historia y Patrimonio Monumental*. Op. cit. 19-20. orr.
5. Erdi Aroko bideei buruz gehiago jakiteko, ikus Arizaga, B.; García de Cortázar, J.Á.; Ríos, M.L. eta del Val, I.: *Vizcaya en la Edad Media*. II. liburukia. Haranburu, Donostia, 1985, 193-212. orr.
6. Ikus García Fernández, J.L. eta Saladina Iglesias Rouco, L.: *La plaza en la ciudad. Galicia. Asturias. Cantabria. País Vasco. Navarra*. Hermann Blume, Madril, 1986.
7. Martínez Rueda, F.: *Otxandio. Historia y Patrimonio Monumental*. Op. cit. 116. or.

Durango

Fundazio-urtea: 1290?

Fundatzailea: Diego Lopez de Haro?

Forua: Logroñoko forua

Pribilegioen hartzaileak: Basailuak eta populatzaileak

Kokapena: Ibaizabal, Zumelegi eta Mañaria ibaiak bat egiten duten lekuan

Kokalekua: Ibaien inguruko ibarreko lautada batean

Altuera: 119 m

Biztanleak (2001): 25.003



Durangoko udalerria Durangaldearen erdi-erdian dago, eskualdeko hiru ibai nagusiek bat egiten duten gunean. Ibaizabal eta bere bi adarrak, Zumelegi eta Mañaria, ditugu ibaiok. Ibaizabalek Bilboren inguruarekin lotzen du hiribildua, Zumelegik Deba bailarari (Gipuzkoan) ematen dio bidea eta Mañaria ibaiaren ibarra zeharkatuz Arabara iristen gara. Leku ezin hobean dago Durango, oso garrantzi handiko bidegurutzeta baita bai eskualdean bai Bizkaia osoan.

Durango hiribilduaren jatorria

Durangoko Tabira hiribildua sortu zuen hiri-gutuna galduta dagoenez, ez dago noiz fundatu zuten zehazterik eta eztabaida biziak sortu izan dira fundazio-dataren inguruan. Iturrizak, Garibayk eta Henaok, besteak beste, XII. mendearen erdia aldera fundatu zutela uste zuten, Nafarroako erregeren baten aginduz. Hori horrela izanez gero, Durango litzateke, eta

ez Balmaseda (1199), Bizkaian eraturako lehen hiribildua. Aipaturako hipotesiei erantzun nahian, Estanislao Labayruk ondorengoa adierazi zuen *Historia General del Señorío de Bizcaya* lanean: bere kideek hiribilduaren fundazioa hain goiz kokatzeko arrazoitzat hartu zituzten foruak berez ez zirela udal-foruak, Durangoko merindadeko zergapeko nekazariei emandakoak baizik¹.

Gaur egun beste uste bat da nagusi: Durango 1290. urtea baino zertxobait geroago sortu zuela Bilboren fundatzaileak, Diego Lopez de Harok. Artean, Jaurerria susperraldi ekonomiko bizian zegoen murgildurik, kostaldearen eta penintsulako barnealdearen arteko trukeek eta, era berean, penintsulako barnealdearen eta Europako kostalde atlantikoaren (Frantzia, Flandes eta Ingalaterra) artekoek izandako gorakadaren ondorioz. Kostaldean Bermeo eta barnealdean Balmaseda, Urduña, Otxandio eta Lanestosa fundatu ondoren, kostaldea

hiribilduz hornitzea (Plentzia, Bilbo, Portugalete, Lekeitio eta Ondarroa) eta barnealdearekiko (Durango) eta Gipuzkoarekiko (Ermua) loturak indartzea erabaki zuten Jaunek.

XIV. mendean arrazoi politikoak eta sozialak zirela medio fundatutako hiribilduak ez bezala, Durango baldintza ekonomikoek eraginda sortu zuten, primerako kokagunea baitzuen Bizkaiko merkataritza-trafikoak sustatzeko eta berak ere handik etekinak ateratzeko.


Durangoaren garapen ekonomikoa Erdi Aroan

Durangaldearen erdian egonik, eskualdeko ardatz izateko sortu zuten hiribildua. Eskualdeko ibai nagusiek (Ibaizabal, Zumelegi eta Mañaria) ere bertan gurutzatzen dute elkar, eta horrek merkataritza sustatzen lagundu zien. Gauzak horrela, biztanleria segituan hazi zen. XV. menderako ekin zioten lehen aldiz hiribildua zabaltzeari (Kalebarriarantz). eta esparru harresituaren inguruan errealak zeuden ordurako. 1514an Durango zen Bizkaiko populazio-dentsitate handiena zuen bigarren hiribildua, Bilboren ostean. 82 su zituen hektarea bakoitzeko².

Merkataritzaren arloan, penintsularen barnealdearen eta Bizkaiko kostaldearen artean kokatuta egotea izan zen suspergarririk handiena, Gernika, Bermeo, Lekeitio, Ondarroa eta Bilborako bideak bertatik abiatzen ziren eta. Gipuzkoarekiko merkataritza-harremanak askoz ere urriagoak omen ziren.

Merkataritzari lotutako lanbideak erruz ugartu ziren: salgaien garraiolariak, tabernariak, ostalariak eta salerosketak errazteko behar diren bestelako ofizioak. Gainera, merkataritzari esker, bai bertako biztanleria, gero eta ugariagoa, bai inguruko base-ri-eremuetakoa hornitzen zituzten.

Artisautzak ere berebiziko garrantzia zuen hiribilduan. Erdi Aroan oihalgintza



Beatriz Arizaga eta Sergio Martínez

eta teilagintza ziren artisau-jarduera nagusiak. Estreinakoz XVII. mendeko dokumentuetan aipatzen den arren, burdingintza ere nahikoa hedatuta egongo zen ustez; halaxe zegoen behintzat garai hartan Bizkaiko hiribildu gehienetan. Erremitteriako burdinaren salerosketa, behinik behin, XVI. mendearen hasierako agiritan dago jasota. Beste artisautza-jarduera garrantzitsu bat larrugintza ei zen, nahiz eta XVI. mendearen erdira arte inolako aipamenik ez egon³.

Hiri-egitura Erdi Aroan

Durango Bizkaiko hiri-esparrurik handienetakoa zuen (5,1 hektarea). Bermeo, Lekeitio, Bilbo, Urduña, Gernika eta Balmaseda baino ez ziren handiagoak. Beraz, hiri-gintza-aldetik gehien garatu ziren hiribilduetakoa dugu. Esanak esan, ez dugu ahaztu behar denak ere txikiak zirela, Gaztela, Leon, Aragoi edo Europako beste erresuma batzuetako hiribilduen aldean. Adibidez, Bartzelonak 140 Ha zituen, Salamancak 110 eta Soriak 100⁴.

Durango oinplanoak Bizkaian oso hedatuta ez zegoen ezaugarri bereizgarri bat du: obala (eliptikoa) da. Halakoxea zen Gasteizkoa ere. Hegaletako bi kalek

(Barrenkaleak eta Kalebarriak), gutxi gorabehera ipar-hego norabidea dutela, muturretan erdialderantz jotzen dute pixka bat. Kaleen norabidea, iparraldetik hegoalderakoa, ere bertako berezitasuna da, Bizkaiko hiribildu gehienetako kaleak ekialdetik mendebalderako norabidea dute eta. Durangon, bideak baldintzatuko zuen, beharbada, hiriaren oinplanoa, edo agian, bidea sustatu nahi zutelako antolatu zuten hiriplanoa hari begira⁵.

Oinplanoa: kaleak, kantoiak eta plazak

Durangok hiru kale zituen hasieran: Goienkalea, Artekalea eta Barrenkalea. Kaleen izenek non zeuden ematen dute aditzera. Goienkalea eta Artekalea zuzen-zuzenak dira; Barrenkalea, ostera, oker samarra, hango orubeen atzeraino heltzen zen ibaiaren ibilbidearen ondorioz. Kantoi estu bat (Zeharkalea) egin zuten hiru kaleak zeharkatzeko, herritarrak batetik bestera arinago joan zitezten, bestela sekulako itzuliturua egin beharko zuten eta.

XV. mendean sortu zuten laugarren kalea, garapen ekonomikoak eragindako populazio-hazkunderari erantzuteko. Kalebarria deitu zioten. Ia XX. mendera arte lau kale horiek osatu zuten Durangoko hirigunea, errebaleen hazkundera gorabehera.

Kale guztiek ez dute zabalera bera. Bengoetxea Rementeriak eta Cajigas Panerak⁶ egindako neurketen arabera, Goienkaleak 5 metro ditu eta Barrenkalea 7raino heltzen da gune jakin batean. Baina azken zabalera hori ez da kontuan hartzekoa, Erdi Aroaz geroztik egindako aldaketen ondorio delako. Kaleen zabalera 6 metro ingurukoa da, oro har. Kantoiak edo Zeharkalea zertxobait estuagoa da: 5 metro ditu batez beste, eta gunerik estuenetan 3,5 metro.

Badirudi hasieran kaleak estuagoak zirela, 1554ko sutearen ondoren kaleak eta karkabak zabaltzea erabaki baitzuten etxe-

ak elkarrengandik hurbilegi egoteak zekartzan arriskuak eta deserosotasunak saihesteko.

Esparru harresitua: harresia eta ateak

Durango merkataritza-bidea indartzeko, hau da, helburu ekonomikoerareparaturaz fundatu bazuten ere, ez zituzten alde batera utzi Erdi Aroko bizimoduari lotu-lotuta zeuden beste alderdi batzuk, hala nola, babes-premia. Durangoko harresiak barruko bizilagunak babesteko balio zuen, batetik, eta hiribildua inguruko landa-eremutik bereizteko, bestetik. Gainera, harresiko ateak hiribildutik pasatzen ziren salgaiak zaintzeko lekurik onenak ziren.

Durangoko harresia aipatzen duen lehen dokumentua 1372koa da, Joan II.ak foruak berresteko⁷ idatzi zuena.

Harresia aztertzeko, bi eraikuntza-aldi bereizi behar dira aurrenik.

Lehen harresia jatorrizko hiru kaleen –Barrenkalea, Artekalea eta Goienkalea– inguruan eraiki zuten hiribildua fundatu zutenean. Andre Mariaren eliza ere harresi barruan geratu zen: agian ez zen harresiari zuzenean itsatsita egongo, baina segurueenez, babes-elementua izango zen. Joera hori nahikoa hedatuta zegoen Erdi Aroan: elizak, hiribilduetako eraikinik handienak eta sendoenak izaki, gotorleku ezin hobeak ziren bizilagunak babesteko. Urduña dugu Bizkaian adibiderik nabariena: bertako parroki elizako absidearen kanpoaldean babeserako gaineko pasabidea dago oraindik.

Durangoko harresia Mañaria ibaiaren ondotik igarotzen zen mendebaldean. Ekialdeko muga, berriz, Goienkaleako etxeharteetan gaur egun dagoen karkaba ei zen.

Egile batzuen ustez, jatorrizko harresiak ez zuen hiribildu osoa inguratzen, hau da, esparru gehiena oso bao gutxiko eta elkarri trinko atxikitako etxeek babesten zuten.

Durango



Kontuan hartzeko moduko hipotesia den arren, gaur egun beste uste bat da nagusi: harresiak hiribildu osoa inguratu zuen hasiera-hasieratik, bai gunerik ahulenak (Andre Maria elizaren eta Santa Ana atariaren inguruak) bai ongien babestuta zeudenak (Mañaria ibaiaren ertzak).

Harresia eraikitzeko erabilitako materialetan ere iritziak ez datoz bat. Lehen harresia zurezkoa izango zen ziur aski (Elorrion argi ikusten da bazegoela horretarako ohitura), baina badirudi handik gutxira beste bat eraiki zutela, sendoagoa, karea eta errekarriak erabiliz. Bigarren hori agirietan aipatzen da, eta aztarna arkeologikoak ere utzi ditu.

Hiru atari omen zituen: hegoaldean, Arabarako irteeran, Santa Anakoa; iparraldean, Andre Mariaren elizaren ezker aldean eta Gernikarako eta Bilborako irteeran, Zumardikoa esaten ziotena; azkenik, Goienkalearen amaieran, Ondarroa eta Ermua alderantz, Kurutziaga ataria⁸.


Bigarren harresia hiri-planoari Kalebarria gehitu ziotenean eraiki zuten. Hiribildua ekialdetik zabaldu zutenean, harresi berria eraiki zuten Kalebarria eta Komentukale arteko orubeen atzealdetik. Karea eta errekarria erabili zituzten. Dena den, eremu hori da historian zehar gehien aldatu dutena, eta horregatik ez da erraza benetan nondik nora zihoan zehaztea. Harresiaren aurririk handiena Komentukalaren 8. zenbakian aurkitu zuten: ipar-hego norabidea duen hare-harrizko horma. Primeran dago eraikita eta gunerik zabalenean 1,65 metro ditu⁹.

Bigarren harresiari beste hiru ate egin zizkioten: Pietatearena, Zeharkalearen ekialdeko muturrean; San Martinena, Kalebarriaren hegoaldeko irteeran; eta Zabala, Zeharkalearen mendebaldeko irteeran. Kurutziagako atari zaharra ekialderantz eraman zuten, harresiaren trazatu berrira egokitzeko.

Harresiaren ondoko orubeak sakonagoak direnez, pentsatzekoa da bai lehenengo harresiak eta bai bigarrenak erronda-pasabidea izango zutela, erasoaldietan herritarrak hobeto babesteko. Harresiaren eta etheen arteko gunez baliatu ziren gerora hiribilduaren esparrua zabaltzeko. Bizkaia osoan egin zuten hori, hiribilduetako kontzejuek erronda-pasabideen okupazioaren kontra erabaki gogorrek etengabe hartu arren. Pasabidearen eremua etxeak handitzeko erabiltzen zuten, baina indartzeko ere bai, haren sendotasunari esker. Batzuek harresian zuloak ere egin zituzten aireztapena hobetzeko eta argitasun handiagoa izateko. Bada gaiari buruzko pasadizo edo berri adierazgarri bat. 1555ean, Korrejidorea Durangora etorri zen: hiribildua oso estua zenez, etxeak harresiaren hormetan egiteko ohitura aspalditik oso errotuta zegoela esan zioten, eta berak ere ederki egiaztatu zuen herrian batetik bestera zebilela. Hori ikusita, harresiak kontontzeko dirurik ez emateko agindu zien alkateari eta zinegotziei: *“andando en la dicha visita, había visto que los vecinos de la villa edificaban sobre los muros y cerca de la dicha villa y había sido informado de que las tales personas estaban en costumbre antigua de hacer los edificios sobre las dichas cercas por la angostura que había en la villa para hacer edificios de casas. Mandó que el alcalde y regimiento non den ni consientan maravedía alguno de los propios de la villa para el reparo de las cercas, que los tales vecinos edificaban sobre ellas”*¹⁰.

Santa Anako ataria da, Erdi Aroan hiribilduaren hegoaldean zegoena, zutik dirauen harresi-atal bakarra. “Azokako ataria” esaten zioten, azoka aldamenen egiten zutelako. Lehen adierazi dugun moduan, litekeena da Sana Ana lehen harresiaren hiru atetako bat izatea. Baina gaur egungo atea ez da Erdi Arokoa, XVIII. mendean beste leku batean berreraikitakoa baizik. Santa Ana berreraiki eta beste kokagune

Durango



Beatriz Arizaga eta Sergio Martinez

DURANGOKO HIRI-BARRUTIAK XIV ETA XV. MENDEETAN IZANDAKO BILAKAERA

batera eraman ondoren, handik urtebetera (1743an) atea botatzea eta berria egitea erabaki zuten. Kanoi-gangadun arkua dauka bi pilare zilindrikoren artean, burualdean harrizko barandadun terraza, erdian frontoi triangeluarra eta alboetan erabat apaindutako bi gorputz zilindriko.

Zubiak

Erdi Aroko zubiei buruzko oso aipamen gutxi daude agiritan, baina ustez hasiera-hasieratik eraiki zituzten Mañaria ibaia zeharkatzeko. Ibaiak hiribildua babestu egiten zuen, baina aldi berean, oztopoa ere bazen Arabaren eta Bizkaiaren barnealdea lotzen zituen bidearekin komunikatzeko.

Hiribilduko lehen bi zubiak, Zumardikoa eta Santa Anakoa, komunikazio-behar horri erantzuteko eraiki zituzten. Lehengo hiribilduaren ipar-mendebaldean zegoen, Zumardiko atarian, Barrenkalearen irteeran; bigarrena, berriz, hegoaldean, Arabara begira. Zubiei esker, hiribilduaren eta inguruko lurren arteko komunikabideak izugarri hobeto ziren, eta, bere kokagune estrategikoari zegokion moduan, merkataritzan garrantzi handia lortzen lagundu zioten Durangori.

Zeharkalearen irteerako zubia geroxeago eraiki zuten. Hasieran Zabala zuen izena, baina denboraren poderioz San Agustin hasi ziren deitzen. Zubiarri esker askoz ere errazagoa izan zen hiribildu barruan ekialdetik mendebalderako joan-etorriak egitea, kantoari, Erdi Aroko kaleen bilguneari, irtenbidea eman zion eta.

Errebalak

Nahiz eta hiriguneari Kalebarria gehitu, etxeen atzealdeko ortuak kendu eta orubeak zatitu, hiribildua txikiegia zen, biztanleria etengabe ari baitzen hazten. XV. menderako hasita zeuden bizimodua hiribilduan egin arren bertan etxerik ez zutenentzako errebalak egiten. Nahiz eta

hirigunetik kanpo egon, gune ekonomiko garrantzitsuak ziren, besteak beste, harresi barruan deserosoak izango ziren jarduerak lasai gauzatzeko adina leku zegoelako.

Errebalak harresiaren atean ondoan kokatu ohi zituzten alde guztietan, merkataritzako joan-etorrietatik etekina ateratzeko, eta horixe egin zuten Durangon ere. Agirien arabera, XV. mendearen amaierarako bost errebal zeuden bost atean ondoan: Ermodoko edo Zumardiko errebala, Bilborako bidean, Mañaria ibaiaren beste aldean; Zabala, izen bereko zubia zeharkatu ondoren; Pinondokoa edo Azokakoa, hori ere Mañaria ibaiaren beste aldean, Arabara bidean; Intxaurrendokoa, San Martin atariaren irteeran, Tabirako San Pedrorako bidean; eta azkenik, Kurutziagakoa, Gipuzkoarako irteeran.

Lekuan lekuko bidearen garrantziak sekulako eragina izan zuen errebalen garpenean. Horrela, Zabala eta Intxaurrendoko, bigarren mailako bideen ondoan zeudenez, Ermodo, Pinondo eta Kurutziaga baino gutxiago hazi ziren.



DURANGON BAT EGITEN ZUTEN BIDEAK

Errebalak, Kurutziagakoa izan ezik, luzexkak ziren, hiribildurako bideen ondoan zeudelako. Kurutziagakoa izena eman zion gurutzearen inguruan egin zuten.

Pinondo eta Kurutziaga errebaiek izan zuten hazkunderik "oparoen", lehenengoak bide garrantzitsu eta eguzkitsu baten ondoan zegoelako eta bigarrenak hiribilduko aberatsenek jauregiak eraikitzeko aukeratu zutelako. Ermodoko auzokide gehienak, oster, pobreak ziren eta herriko lekurik itzaltsuenean bizi behar izan zuten.

Orubeak eta eraikinak

Hiribilduaren egitura kaleen bidez taxutu eta gero, barruko espazioa orubeetan banatu zuten. Ziur aski orube guztiak berdinak izango ziren, eta nahikoa estuak. Baina handik gutxira, "berdintasuna" aniztasun bihurtu zen, hainbat arrazoiengatik. Batetik, biztanleriaren hazkunderen ondorioz, orube batzuk bitan banatu behar izan zituzten etxebizitza bakarren orde bi eraikitzeko. Bestetik, dirudunek ondo lursailak erosteari ekin zioten dorretxeak egiteko. Gainera, etxeak estuak zirenez, kale batzuetan erronda-pasabideaz baliatu ziren leku gehiago izateko. Azken arrazoiak hiribilduak jasandako sute ugariak ditugu, berreraikuntza-lanetan ziur aski orube batzuen egitura aldatu egingo zuten eta.



KURUTZIAGA

Orubeetan hiribilduetako etxe bereizgarriak eraiki zituzten. Erdi Aroan Durango-ko etxe gehienak zurezkoak ziren, materialik merkeena zelako, eta jakina, erraz hartzen zuten sua. 1457an, Enrike IV.a erregea Durangora etorri zen, eta hiribilduari nola-

ko itxura hartu zion galdetu ziotenean, etxe guztiak egurrezkoak izatea erokeria hutsa zela erantzun omen zien, edozeinek, nahita ala nahigabe, lasto-eskukada bati su emanez gero, dena kiskalita geratuko zela. Horra nola azaldu zuten pasadizoa Garribayk: «Refieren algunos

viejos por tradición que preguntado en Durango el Rey, que le parecia aquella villa, respondió: que estaba en poser de un loco, dijo, por ser todas las casas de tabla, porque estaba a la ventura de quien con un manojo de paja, haciendo un desatino, o descuido, diese fuego a la villa»¹¹.

Eta hala izan zen. 1554an, sute baten ondorioz, etxe guztiak erre ziren, harrizko bakan batzuk izan ezik.

Etxeak orubeen diseinura egokitzen zituztenez, estuak eta luzeak ziren. Fatxada oso txikia zen eta barrualdea luze-luzea. Beraz, argia eta airea nekez sartzen ziren, baoak ere urriak eta txikiak ziren eta.

Bi solairuko etxeak ziren. Goikoa bizitzeko erabiltzen zuten eta behekoa merkataritza-lanetarako. Teiltupean, berriz, ganbara zeukaten, gauzak gordetzeko.

Hiribilduetako etxez gain, dorretxe asko eraiki zituzten, nobleek ere bertako

ekonomia oparoan parte hartu nahi izan zutelako. Garai hartako dorretxe bakarra dago gaur egun: Lariz dorrea, Barrenkalean. Jaurerriko beste hiribildu askotan bezala, bando-kideen arteko gerra bukatu eta gero, dorretxea hiri-jauregi bihurtu zuten, erosoagoa eta bake-garairako egokiagoa izan zedin.

Espiritualtasunaren eremuak

Etxebizitzez gain, espiritualtasunari eskainitako eremuek ere garrantzi berezia izan zuten hiribilduan. Uribarriko Andre Maria da historiaren eta artearen ikuspegitik baliorik handiena duen Durangoko eliza. Zenbait egilek X. mendekoa dela dioten arren, agirietan jasotako lehen datu ziurra 1372koa da, Durangoko foruak berretsi zituzten urtekoa. Jatorrizko elizaren aztar-

narik ez da geratzen, eta aurririk zaharrenek XVI. mendearen hasierakoak dira. Tenplua ur-poltsa handi baten gainean egin zutenez, hamaika arazo sortarazi ditu, eta mendez mende konponketa-lan ugari egin behar izan zaizkio.

Tenpluak lau eraikuntza-alditako ezau-garriak ditu funtsean. Lehen aldia, gotikoa, eraikinaren neurri orokorren iturburua dugu. Trazadura ausarteko koru hispaniar-flandestarraren arkuak (1525 ingurukoa) da garai hartako elementu nagusia. Bigarren aldian, Errenazimenduan, kanpandorrea egin zuten. Hirugarren aldiaren emaitza arkupe zaharra izan zen, estiloz klasizista goiztiarra. Azkenik, garai klasizistaren unerik gorenean, elizaren egungo ia egitura guztia taxutu eta hegoaldeko arkupea egin zuten¹².




DURANGOREN IKUSPEGIA. AURREAN, ZUBIA ETA SANTA ANA ARKUA
Iturria: Madoz, P.: *Diccionario Geográfico-Estadístico-Histórico...*

Horrela, bada, XVI. mendearen hasieran eraikitako eliza handitu egin zuten XVII. mendean. Urizarzabalek diseinatu zituen lanak 1622an, baina 1645ean Juan de Ansolak zuzendu egin zuen dena goitik behera. Biek oso gustu arkaikoak zituztenez, tertzeleteak eta gurutzeria ezarri zizkieten hiru nabeetako gangei. Portadak hainbat egilek eraiki zituzten: mendebaldekoa Domingo de Anituak (1611), hegoaldekoa Bengoecheak (1622) eta mendebaldekoa Ormaecheak (1611).

Hegoaldeko arkupea bereziki aipatzeko modukoa da: arotzeria-lan herrikoi bikaina da, eta gainera, eguraldi txarrarekin ere babestuta egoten den plaza eta azoka. 1678tik 1681era bitartean eraiki zuten, baina 1937ko bonbardaketaren ostean, berriro jaso behar izan zituzten arkupea, korua, kaperak eta sakristia, txikituta zeuden eta¹³. Arotzeria-lan bikain hartan, 14 eta 16,5 metro bitarteko argidun eremu estalia egin ahal izan zuten. Herriko gune nagusietakoa bihurtu zen durangarrentzat¹⁴.

Santa Ana eliza Andre Mariarenaren beste muturrean dago, hiribilduaren hegoaldean. XV. mendean eraiki zuten, biztanleriaren gorakadaren ondoriozko beharrei erantzuteko, kale berria eta haren inguruko harresia bezala. Ez zaigu jatorrizko elizaren aztarnarik heldu, eta ez dakigu benetan non zegoen ere. Gaur egungoa, hiru nabe eta gurutzadura dituen eliza, XVIII. mendean amaieran eraiki zuten lehengoa baino kanporago, aurrekoa oso leku hezean zegoen eta. XVIII. mendeko berreraikuntzalanetan beste helburu bat ere izan zuten: hedadura handiagoa ematea, biztanleriaren hazkundearen ondorioz ez baitzegoen denentzako lekurik.

Komentuei dagokienez, San Frantzisko moja-komentua da Erdi Aroko bakarra. 1439. urtean eraiki omen zuten, gutxi gorabehera, eta 1599an bihurtu zen klausurakoa.



Beatriz Arizaga eta Sergio Martínez

URIBARRIKO ANDRE MARIAREN ELIZA



Beatriz Arizaga eta Sergio Martínez

DURANGOKO BI PLAZA NAGUSIAK
ELIZEN ONDOAN ZEUDEN

Oharrak

1. Labayru, E.: *Historia General del Señorío de Bizcaya*. II. liburukia. Bilbo, 1897. Jatorrizko argitalpenaren faksimilea. La Gran Enciclopedia Vasca argitaletxea. Bilbo, 1968. 146-149. orr.
2. Ikus García de Cortázar, J.Á.: "Las villas vizcaínas como formas ordenadoras del poblamiento y la población". *Las formas del poblamiento en el Señorío de Vizcaya durante la Edad Media*. Bizkaiko Foru Aldundia. Bilbo, 1978. 106. or.
3. Durangoko hiribilduko ekonomiari buruzko xehetasunak ikusteko, Iturbe Mach, A.: *Algunas notas sobre la historia de Durango*. Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo, 1993. 43-76. orr.
4. Arizaga Bolumburu, B.: *Urbanística medieval*. Guipúzcoa. Kriselu, Donostia, 1990. 104. or.
5. Ikus Bengoetxea Rementería, B. eta Cajigas Panera, S.: *Durango. Transformaciones históricas de su configuración urbana*. Durangoko Arte eta Historia Museoa, Bilbo, 1997. 31. or.
6. Ikus Bengoetxea Rementería, B. eta Cajigas Panera, S.: *Durango. Transformaciones históricas...* Op. cit. 101-102. orr.
7. Iturriza y Zabala, J.R.: *Historia General de Vizcaya y Epítome de las Encartaciones*. Edición Rodríguez Herrero. Librería Arturo argitaletxea. Bilbo, 1967. 218-224. orr.
8. Durangoko esparru harresituko ateen kopurua eta kokapena eztabaida-iturri dira oraindik. Lanean hauen guztien ondorioak hartu ditugu kontuan: Bengoetxea Rementería, B. eta Cajigas Panera, S.: *Durango. Transformaciones históricas...* Op. cit. 35-79 orr. Ikus horrekin batera Basterretxea Moreno, A.: "Puertas y arrabales de la Villa de Durango", *Cuadernos de sección Historia-Geografía*, 21 lanean, Eusko Ikaskuntza, 1993, 155-166. orr.
9. Bengoetxea Rementería, B.: *Memoria de los sondeos arqueológicos realizados en el Casco Histórico de la villa de Elorrio*. Lan hori Dona Gil Abad-ek Elorrioko hiribilduaren inguruan oraintsu argitaratutako Azterketa Historiko Arkeologian (PERI) dago oinarrituta: *Elorrio. Urbanismo medieval de la villa*. Elorrioko udala. Euskal Kultur Ondarearen Zentroa. Kultura Saila. Eusko Jaurlaritza, Bilbo, 1997.
10. Durangoko Udal Artxibategi Historikoa. 1. kontu-liburua, 139. or. 1555-09-02. Lan honetan jaso: Bengoetxea Rementería, B. eta Cajigas Panera, S.-ren *Durango. Transformaciones históricas...* Op. cit. 53-55. orr.
11. Garibay, *Compendio*. II, XVII lib., III kap., 501. or. Lan honetan jaso: Arizaga, García de Cortázar, Ríos, Del Val: *Vizcaya en la Edad Media*. III. liburukia. Op. cit. 33. or.
12. Elizari buruzko azterketa sakona: Barrio Loza, J.A.; González Cembellín, J.M. eta Santana Ezquerri, A.: *El patrimonio monumental de la villa de Durango*. Durango, 1987.
13. Ikus *Arquitectura y Desarrollo Urbano*. Bizkaia. Madril, 1997. 36-37. orr.
14. Ikus García Fernández, J.L. eta Iglesias Rouco, L.S.: *La plaza en la ciudad*. Galicia. Asturias. Cantabria. País Vasco. Navarra. Hermann Blume, Madril, 1986. 335. or.

Ermua

Fundazio-urtea: XIII. mendearen bukaera eta XIV.aren hasierara

Fundatzailea: Diego Lopez de Haro V.a?

Forua: Logroñoko Forua

Pribilegioen hartzaileak: Basailuak eta populatzaileak

Kokapena: Bizkaiko probintziaren ekialdeko muturrean, Eibartik oso hurbil

Kokalekua: Ibar bateko lautadan

Altuera: 170 m

Biztanleak (2001): 16.795

Ermua udalerria Durangaldean dago. Bai herria bai eskualde osoa malkartsuak dira. Ermuak eta aldameneko bi udalerriek, Mallabiak eta Zaldibarrek, mendi garaiak dituzte inguruan: besteak beste, Udala (1.092 m), Anboto (1.268), Urko (791) eta Oiz (1.026). Baina eskualdea menditsua izan arren, hiribildua garaiera txikiko lekuan dago: itsasoaren mailatik 121 metrora.

Bizkaiko beste udalerrietan ez bezala, bertako urak ez doaz probintziaren barnealdera, aldameneko probintziara, Gipuzkoara, baizik. Erreka txikietako urak Ego ibaian isurtzen dira, eta Egok Deba ibaira eramaten ditu.

Herririk irisgarrienak Durango eta Eibar (Gipuzkoa) dira. Gainera, Bizkaitik Gipuzkoarako sarbide nagusia da Ermua, Eibar (Gipuzkoa) bertatik bertara dago eta. Erdi Aroan ere Deba eta Ibaizabal bailaretako herrien arteko lotunea izan zen. Azkenik, Ermua Markinarako bidearen abiapuntua da, halaber.




XX. mendearen erdira arte Ermua eta ingurunea elkarri lotuta egon ziren; baina ordutik hiribilduak hazkunde ikaragarria izan zuen, eta lotura zeharo hautsi zen. Ibarbide estuan kokatutako Erdi Aroko hiribildu txikia industri hiri bihurtu zen urte gutxian, eta antzinako bizilagunek deserosoak izateagatik baztertutako lursailetan etxeak eraikitzeari ekin behar izan zioten ezinbestez. Aipatutako hazkundea- ren ondorioz, Erdi Aroko hirigunea baztertuta geratu zen. Bizkaian makina bat udalerritan gertatu zen baztertze-prozesu hori, baina Ermua izango dugu, agian, adibiderik garbiena. Berezko prozesu horri XVIII. mendearen amaieran jasandako sute izugarriaren ondorioak gehitu behar zaizkio, hiribilduko jatorrizko morfologia ia erabat galdu baitzen.

Hiribilduaren fundazioa

Ermua fundatu zuen hiri-gutuna ez dutenez aurkitu, ez dakigu zein urtetan sor-

tu zuten. Baina historiografiaren arabera, XIII. mendearen amaieran edo XIV.aren hasieran fundatu zuten. Hiri-gutuna 1295etik 1310era bitartekoa dela eta Diego Lopez de Harok, Bilboren fundatzaileak, sinatu zuela uste du Iturrizak¹.

Esanak esan, 1372koak dira hiribilduari buruzko lehen datu ziurrak, Joan infanteak Ermuko basailuei pribilegio, askatasun eta ohitura onak berretsi zizkien urtekoak, alegia².



ERMUA UDALERRIA

Ermuko hiribilduaren sorrerak Berant Erdi Aroan hegoaldea eta iparraldea, hots, penintsularen barnealdea eta Bizkaiko Itsasoko kostaldea, lotzen zituzten bideek Bizkaiko Jaurerrian hartutako garrantziarekin du zerikusia. Lehenbizi, Jaurerriaren sarreran kokatutako mendateetan zeuden herri-guneak (Balmaseda, Urduña, Otxandio eta Lanestosa) egin zituzten forupeko, eta baita Bermeoko portua (kostaldean) ere. Ondoren fundatutako hiribilduen bi-

dez, bide horiek indartzen, Gipuzkoarekiko harremanak sendotzen eta kostaldea egoki hornitzen saiatu ziren. Helburu horiek lortzeko fundatutako lehen hiribildua Plentzia (birfundatu egin zuten) dugu, eta azkena Areatza (1338). Bien bitartean, zortzi hiribildu sortu zituzten: bost kostaldean (Plentzia, Bilbo, Portugalete, Lekeitio eta Ondarroa) eta hiru barnealdean (Durango, Ermua eta Areatza). Ermua Deba bailarako (Gipuzkoa) eta Durangaldeko bideen arteko lotune izateko fundatu zuten funtsean.

Gerora sortutako beste hiribildu batzuetan (Markinan, Elorrion...) ez bezala, ez dirudi ermuarrak gipuzkoarren erasoaldietatik babesteko asmoak fundazioan inolako zerikusirik izan zuenik. Ermuari hiri-gutuna eman ziotenean, bandoen arteko gatazka ez zen hain gogorra, eta artean ez zegoen Jaurerriaren ekialdeko muga gotortzeko premiarik³. Gainera, bailara-zuloan eta mendi garaiz inguratuta zegoenez, ez zen oso leku aproposa babes-zereginetarako. Egia esan, Bizkaiko gainontzeko hiribilduak ere, ezta gotorleku izateko sortutakoak ere, ez zituzten inguruak menderatzeko moduko leku garaietan kokatu, baina Ermua da zeregin horretarako gutxien balio duen hiribilduetako bat.

Jaunaren basailuek makina bat abantaila eskuratu zituzten hiri-gutunari esker: ordu-ra arte Bizkaiko Jaunaren mende zeuden eta gizaki aske bihurtu ziren. Jaunak Logroño-ko forua eman zien, alegia, merkataritza-trukeak bultzatzeko eta landa-eremu izateari uzteko behar zuten askatasuna: *“concede a sus destinatarios de las villas un estatuto de libertad suficiente para promover el desarrollo de los intercambios mercantiles y contribuir así a alterar la vieja imagen exclusivamente rural de la población de la zona”*⁴. Foruak garapen ekonomikorako oinarriak finkatu zituen Durangaldeko hiribildu berrian, bai Bizkaiaren eta Gipuzkoaren arteko lotunea zen aldetik, bai penintsulako barnealdetik Jau-



ERMUKO IKUSPEGIA

rerrirako ibilbideetan zuen garrantziari zegokionez.

1372ko berrespen-gutunak dioenez, ermuarrek erosteko eta saltzeko askatasuna zuten, eta asteen behin, larunbatetan, azoka egiten zuten⁵. Frankoak zirenez, ez zituzten Jaunari zegozkion eskubide asko ordaindu behar, eta haren zuzeneko agintetik aske geratu zirenez, udal-organoak sortu zituzten.

Logroñoeko Foruaren bidez eskuratutako abantailen osagarri, hiri-gutunak bere eskumenekoa izango zen lurralde-barrutia eman zion hiribilduari, garapen ekonomikorako bitartekoak ziurtatuta izan zitzaizkion. Hauexek ziren barrutiaren mugak: *“Comenzando de la piedra crucijada de Olaerreaga por el bado arriba, al pasaje de Pagazubiaga, é dende por el camino real adelante fasta la Hermita de Santa Maria de Areitio, é dende por el camino*

ajuso al arroyo de Mallagarai, é dende á suso el arroyo que descende de las tejerías á pasaje de Eztacona, é dende arriba a dicho Eztacona, ó del dicho Eztacona a Artiaga, é del dicho Artiaga al arroyo que pasa a Berano aguirre, é por el camino adelante a Beranogoitia, é dende el arroyo que esta debajo de Astorregui arriba fasta encima del cerro, é del dicho cerro a Undiogana, é dende por do se vierten las aguas adelante a la Sierra de Urcogana, é del dicho Urcogana por las esquinas á juso por do se vierten las agoas por las esquinas a juso á Paganabarraga é Careaga, é dende ajuso derecho a la crucijada de la piedra de Olaerreaga”⁶.

Bizkaiko hiribildu guztiei antzeko pizgarriak eman zizkieten. Abantaileri esker, landa-eremuetako jarduera bereizgarriak, nekazaritza eta abeltzaintza, hein batean utzi eta Bizkaiko gainontzeko hiribilduetan nagusi ziren zereginetan, merkataritzan eta

industrian, hasi ondoren, garapen ekonomiko handia izan zuen Ermuak. Oro har, jarduera ekonomikoak dibertsifikatuz eta jarduerok garatzeko erraztasunak emanez hiribilduko ekonomia garatzea izan zen hiri-gutunaren azken helburua⁷.

Aipa ditzagun Jaunak hiribilduko alde hartutako neurri batzuk: udal-barrutia kolonizatze eta basoak eta errekek nahi zuten moduan erabiltzeko askatasuna, errotak eta burdinolak eraikitze erraztasunak (zergarik ez kobratzekotan) eta, bereziki, merkataritza sustatzeko pizgarriak, hala nola, salerosketetarako askatasuna, jabetza pribatuaren babes, salgaiak garraiatzeagatik eskubide-zergarik ez ordaintzea eta astean behin azoka egin ahal izatea. Halaber, esparru ekonomiko jakin batzuk finkatu zituen hiribilduarentzat, eta erabateko nagusitasuna eman zion horietan: (*“en todo Durango non haya reventa ninguna desde dicha Villa de Hermua fasta la villa de Durango, salvo en la dicha villa de Ermua”*). Era berean, ibilbide batzuetako salgaiak derrigorrez hiribildutik pasatzeko agindua eman zuen: *“otrosi mando a todos los caminantes. ó recuas que ban, é fueren de la Villa de Sant Andrés de Heibar [...] para la Villa de Tabirra, é Bilbao, que pasen, é bayan por su camino real por la villa de Hermua...”*.

Datu gutxi egon arren, ermuarrak hiri-gutunaren bidez lortutako abantaila onura ateratzeko gai izan zirela ematen du, landa-eremuekin inolako zerikusirik ez zuten jarduera ekonomikoak garatu baitzituzten, biziki garatu ere. Erdi Aroan, hiribilduko bizilagunak merkataritzan eta burdingintzan omen zebiltzan buru-belarri. Merkataritzari buruz ezer gutxi dakigu, baina ziur aski hasieratik hartuko zuen indarra: hiribildua Bizkaiaren eta Gipuzkoaren arteko mugan zegoela eta hiri-gutunak hamaika abantaila eman zizkiola kontuan hartuta, biztanle gehienak laster asko aukeratuko zituzten jarduera horri lotutako ogibideak (garraiolariak, merkataria, dendariak...).

XVI. mendean, antza, merkataria handi asko ermuarrak ziren; argi dago, beraz, merkataritza oso hedatuta zegoela hiribilduan.


Bestalde, burdingintza jarduera oparoa zen, eta horrek ere mesede galanta egin zion merkataritzaren sustapenari. Meato-kiak hurbil zeuden, baso ugari zituzten aukeran zura lortzeko eta errekek emaritsua eta oso maldatsuak ziren, energia sortzeko aproposak. Horrela, XV. mendearen amaierako agiri batek Ermua “burdinaren hiribildua” dela dio⁸. Burdingintzari esker, ekonomiaren goraldiak herritar guztiengan izan zuen eragina, lotura zuzena zuten lanbideez gain (olagizonak), egurginak, ikazkinak, zura eta burdina garraiatzeko jendea, merkataria... behar ziren eta.

Laburbilduz, Ermuak, bidegurutze batean kokatua, baliabide materialez hornitua eta hiri-gutunak emandako abantailak zituela, zeresan handia izan zuen Durangaldean. Nahiz eta txikia izan (1514an 108 su baino ez zituen), garrantzi handia hartu zuen, inguruetan behintzat⁹.

Hiribilduaren egitura fisikoa Erdi Aroan

Hiribildua ibarbide bateko lautadan eraiki zuten. Horregatik, ez zuten inolako arazorik izan Bizkaiko hiribilduetan nagusi zen oinarritzko trazatua taxutzeko: plano laukizuzena eta dama-jokoaren taularen antzera antolatutako kaleak. Hasieran, hiru kale paralelo eta kantoia zituen Ermuak: kaleek –Goenkale, Artekale eta Barrenkale– ekialdetik mendebalderako norabidea zuten gutxi gorabehera, eta kantoiak iparraldetik hegoalderakoa.

Izan ere, eguzkiak ahalik eta gehien jartzeko eta Gipuzkoaren eta Bizkaiaren artean joan-etorriak egin behar zituztenei ibilbidea errazteko aukeratu zuten kaleen norabidea. Hiri-egitura horren osagarri, plaza txiki bat zegoen Santiago elizaren aurrean. Seguruenez, hantxe egingo zuten asteko azoka, eta herritarren bilgunea ere izango zen.



Bestalde, harresia eraiki zuten, hiribilduaren esparrua babesteko eta mugatzeko. Ez dakigu noiz egin zuten: seguruenik, orubeetan etxeak eraikitzen hasi zirenean edo apur bat geroago. Badirudi Bizkaian nagusi ziren bi babes-sistemak batera erabili zituztela, hau da, horma exentua eraiki zutela, baina aldi berean, etxeen atzealdeak harresiaren atalak izan zirela. 1722ko agiri batean Ermuko harresia eta hormak aipatzen dira: *“...muralla y paredes de esta dicha villa”*¹⁰. Ikusten denez, agerian zeuden lekuetan harresia egin zuten, eta kokalekuari esker ongi babestuta zeuden eremuetan (errekaondoetan) etxeen atzealdeko hormez baliatu ziren hiribilduaren esparrua babestu eta mugatzeko.

Harresiak atek zituen kanporako joan-etorrietarako, baina ez dakigu zenbat ziren. Halaber, ez dakigu harresian edo ateen gainean babeserako dorrerik ote zegoen; arrastorik ez zaigu heldu, behintzat.

Barrualdean, kaleen eta kantoien artean mugatutako etxe-uharteetan (etxe-ilara bakarra zegoen bakoitzean), orube berdintsuak taxutu zituzten: aurrealdean etxeak eraiki zituzten eta atzealdean ortuak ezarri. XV. mendetik aurrera, populazioa handitu ahala, ortuak galdu egin ziren, leku guztia etxeentzat hartu behar izan zuten eta. XVIII. mendearen azken aldera, sute batek kiskalita utzi zituen Erdi Aroko eraikin guztiak (gehienak egurrezkoak).

Oharrak

1. Iturriza y Zabala, J.R.: *Historia General de Vizcaya y Epítome de las Encartaciones*. Edición Rodríguez Herrero. Librería Arturo argitaletxea. Bilbo, 1967, II. liburukia. 224-230 orr.
2. García de Cortázar, J.Á.: "Las villas vizcaínas como formas ordenadoras del poblamiento y la población". *Las formas del poblamiento en el Señorío de Vizcaya durante la Edad Media*. Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo, 1978, 80. or.
3. Ermuko hiribildua Gipuzkoatik babesteko sortu zela dio ondorengoak: Basas, M.: "Importancia de las villas en la estructura histórica del Señorío de Vizcaya". *Edad Media y Señoríos: el Señorío de Vizcaya*, Bilbo, 1971. 111. or.
4. Arizaga, B.; García de Cortázar, J.Á.; Ríos, M.L. eta del Val, I.: *Vizcaya en la Edad Media*. I. Haranburu. Donostia, 1986, 134. or.
5. Iturriza y Zabala, J.R.: *Historia General de Vizcaya...* Op. cit. II. liburukia, 227-229. orr.
6. Iturriza y Zabala, J.R.: *Historia General de Vizcaya...* Op. cit. II. liburukia, 229. or.
7. Ikus Pinedo Otaola, J.A.: *Ermua, Mallabia y Zaldibar. Estudio histórico-artístico*. Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo, 1996. 44-48. orr.
8. Zaldibarko Udal Agiritegia: *Sección Documentos Históricos*. Iturria Pinedo Otaola, J.A.: *Ermua, Mallabia y Zaldibar. Estudio histórico-artístico*. Op. cit. 27.
9. Su-kopuruari buruzko datua: García de Cortázar, J.Á.: *Vizcaya en el siglo XV*. BAK. Bilbo, 1966. 72. or.
10. Bizkaiko Elizaren Agiritegi Historikoa, Otxandioko Santa Marina parrokia, Hainbat paperen saila. Iturria: Pinedo Otaola, J.A.: *Ermua, Mallabia y Zaldibar. Estudio histórico-artístico*. Op. cit. 39. or.

*Atal honetako argazkiak Pinedo Otaola, J.A.ren *Ermua, Mallabia, Zaldibar. Estudio histórico-artístico* lanetik hartu ditugu. Op. cit.

Elorrio

Fundazio-urtea: 1356

Fundatzailea: Tello Kondea

Forua: Logroñoko Forua

Pribilegioen hartzaileak: Nekazari jakin batzuk eta aitoren semeak

Kokapena: Bizkaiaren hego-ekialdean

Kokalekua: Zumelegi errekaaren ondoko lautadan

Altuera: 182 m

Biztanleak (2001): 7.157

Elorrio Bizkaiaren hego-ekialdean dago, Gipuzkoatik oso gertu, Zumelegik, Ibaizabalen ibaiadarrak, zeharkatzen duen lautada zabalean. Jatorrizko hiribilduaren eta mendez mende egin dizkieten zabalkuntza ugarien inguruan 700 metrotik gorako mendiak daude, hala nola, Udalaitez eta Anboto. Biderik errazena Durangokoa (ibaiaren ibilguari jarraituz) eta Berrizkoa eta Zaldibarkoa dira. Arrasatera eta Elgetara joatea nekezagoa da, oster, Kanpazar mendatea (467 metrokoa) eta Pagatzako gaina igaro behar baitira, hurrenez hurren¹.

Elorrioko eremuak lurrin guztia Durango aldera isurtzen duen galdara dirudi. Baina hala ere, isolamendua inoiz ez da izan eskualdeko ezaugarri bereizgarria; aitzitik, Elorrio laster asko bihurtu zen Ibaizabal arroaren eta Deba ibar goienaren eta erdiaren arteko lotune.

Hiribildua fundatu (1356) aurretik, basilizen inguruan antolatutako biztanle-gune txiki asko ei zeuden hemen, denak nahikoa



leku garaietan. Salbuespen bakarra Etxebarriako San Agustin zen, dokumentuetan aipatzen den lehena: haranaren behealdean zegoen, gerora hiribildua egin zuten gunitik metro gutxira.

Argiñetako San Adrian dugu basiliza horietako bat. Goiz Erdi Aroko harlauzako hilobi ikusgarriak daude bertan, eta asko, inguruetakoa basilizetakoak dira. Bada, nekropoli horretako hilobi batean dago kristautze-prozesuak Bizkaian utzitako lehen testigantzetako bat: hildakoaren izenaren ondoan "In Dei nomine" erregua eta data agertzen dira alegia, "Era de 921, año 883". Kristautasuna Elorrio aldera hain goiz iritsi izanak Bizkaira hegoaldetik, Arabatik, heldutako eraginarekin du lotura².

Hiribilduaren fundazioa

Elorrio hiribildua Tello Bizkaiko Jaunak fundatu zuen 1356ko ekainaren 27an. Urte gutxian hiribildu pila bat fundatu zituzten Bizkaian: 1355etik 1376ra bitartean Marki-

na, Elorrio, Gernika, Gerrikaitz, Ugao, Mungia, Larrabetzu eta Errigoiti. Zortzi hiribildu hogeita bat urtean.

Jaurerrian XIII. mendearen bukaeran eta XIV.aren hasieran gailendutako oparoaldia-
ren ostean Areatza (1338) eta Markina (1355) fundatu izanak egoera sozio-ekonomikoa errotik aldatuta zegoela uzten du agerian. Ordura arteko hiribilduak interes ekonomikoek eraginda fundatu zituzten batik bat, baina Areatza fundatu ondoren, krisialdi demografiko eta sozial gogorra jasaten ari zirela, landa-eremuetako biztanleak babesteko premiari eta populazioa sustatzeko ahaleginari erreparatu zieten gehienbat.

Gauzak horrela, Elorrioko hiri-gutunak Zumelegi errekararen inguruan bizi zirenen arazo berri ematen digu. Bizkaiko Jaunak bi helburu nahi zituen lortu hiribildua sortuz: batetik, populazioa harresiz inguratutako hiri-gunean aitoren semeen (eta lur-raren beraren) erasoaldietatik babestuta egotea, eta bestetik, beste leku batzuetako biztanleak erakartzeari, eskualdeko demografia sustatzeko.

Lehen helburua nahikoa argi aipatzen du hiri-gutunean: *“...porque nos dijeron que cada que acaeciére que los de Guipuzcoa han a entrar a robar et a furto, et facer mal, et daño alguno en el nuestro Señorío de Vizcaya han la entrada por el nuestro llano de Elorrio, et que faciendo una villa en el dicho llano que non podrian haber otra entrada tan presta, et que por esta razon se escusarian de facer muchos robos, et males, et furtos en el nuestro Señorío de Vizcaya...”*³. Gipuzkoarrak Bizkaiko Jaurerria lapurtzera edo kalte egitera etortzen zirenean Elorrioko lautadatik sartzen zirela esan

omen zioten (“esan digute”) Jaunari; badi-rudi, beraz, Elorrioko lautadako biztanleek eurek eskatu ziotela harresiz inguratutako hiribildua sortzeko, erasoaldien kontra hobeto babesteko zirelakoan. Mungia, Larrabetzu eta Errigoitiko nekazariak arazo berbera zuten eta beren eskariak ere erantzun berbera izan zuten.


Hiribilduaren bidez, Elorrioko lautadako biztanleak ez ezik, Bizkaiaren ekialdea ere hobeto babestu zuten Jaunak (Ermua eta Markina

lagungarriak izan ziren horretan). Inolako babesik gabeko biztanlegune ugari ordez, bere burua defendatzeko gai zen hirigune sendoa taxutu zuten.

Bestalde, aitoren semeen borrokaldien iturburu nagusietakoa Jaurerriaren despoblazioa zenez, biztanleria handitzen saiatu zen Jauna. Baina Elorrioko hiri-gutunean inguruko nekazari jakin batzuei (*“los labradores de la nuestra tierra de Axcoena, que es Lenizgarai e del nuestro monesterio de Echebarria e non de parte alguna...”*) baino ez ziren aitortu bertara

bizitzera joateko eskubidea, bestela urtebetez zergak jaso gabe egon beharko zuten eta.

Bere nekazariekin ez zen batere eskuzabala izan, baina Jaurerrikan kanpokoei ez ziren inolako oztoporik jarri, haien etorrerak ez baitziren inolako kalterik egingo: *“e otrosi labradores hi quisieren venir a morar que sean de otro señorío, e non de los nuestros pecheros que vengan a morar sin embargo ninguno...”*. Aitoren semeei, eragozpenik ez jartzeaz gain, hiribildura etortzeko eskatu ziren: komeni ere komeni zitzaion aitoren semeak



bertan bizitzea, ordura arte ez bezala, zergak ordaintzen hasi beharko zuten eta: “... e los fijosdalgo que vengan de qualquiera parte que sean a morar e pechar en la dicha villa...”.

Hiri-gutunean berariaz aipatzen du bere asmoa populazioa sustatzea dela. Astean behin merkatua egiteko baimena eman zuen, horrek biztanleria erakartzen lagunduko zuelako, berak nahi zuen moduan: “...haviendo mercado en la dicha villa se poblaria más aina, e esto es nuestro servicio...”.

Astean behin merkatua antolatzeke eskubideaz gain, makina bat abantaila lortu zituzten hiribildu berriko biztanleek: Logroñoko Forua, lurralde-barrutia eta zerga-salbuespena.

Bizkaiko Jaunak Logroñoko Forua eman zien Jaurerriko hiribildu guztiei: batzuei, gehienei, zuzenean eta, beste batzuei, zeharka, Gasteizko Foruaren (Urduñari) eta Bilbokoaren bidez (Markinari). Elorriarrek, Logroñoko Foruari esker, ordura arte landa-eremuan Jaunarenganako zuten mendetasuna utzi eta pribilegio ugari eskuratu zituzten: denak ziren hiritarrak, eta beraz, berdinak; askatasun pertsonala zuten; Jaunaren eskubideak mugatuta zeuden; nahi bezala salerosteko eskubidea zuten; kargu politiko gehienak hautatzeko eskubidea... Hitz batean, lehen Bizkaiko Jaunaren esanetara egondako biztanle haiek hamaika abantaila lortu zituzten hiribildura etorri ondoren.

Adierazi dugun moduan, Jaunak kendu egin zizkien zergak, baina Elorrio XIV. mendetik aurrera sortutako hiribilduen artean salbuespenik estuena jaso zuena izan zen. Areatzakoek zazpi urte eman zituzten zergarik ordaindu gabe, Markinakoek hamabi, Gernika eta Gerrikaitzekoek zortzi, Ugao-koek bost eta Mungia, Larrabetzu eta Errigoitikoek sei; Elorrioren, ostera, nekazariei urtebetez kendu zizkien zergak eta aitoren semei sei urtez. Tarte horretan, harresia eraikitzeke kendu ohi zizkieten zergak biztanleei, dirutza handia behar izaten zuten

eta. Elorrioko hiri-gutunean, fundatu eta hurrengo hamar hilabeteetan harresia eraikitzeke agindu zien biztanleei.

Azkenik, Jaunak ondorengo lurralde-barrutia eman zion hiribilduari, garatu ahal izateke: “los montes e pastos que son desde la Padura de Anguio a Mondituait, e a la puente de Ansoategui e al camino adelante a Urrramendi e a Bolunzarraga, e de dentro del sel de Goro-sarri fasta la cima de la peña, e dende a la iglesia de Axconaeta, e fasta el sel de Olazabal, los que entre los logares son, salvo ende los seles que son del Monesterio de Echebarria para facer, e usar, e cortar leina, e madera los vecinos e moradores que en la dicha villa moraren de aqui adelante para siempre jamas”. Lur horiek guztiak Etxebarriako San Agustin elizarenak ziren, eta agian egungoak baino zabalagoak. Dena den, oso zaila da toponimoak identifikatzea.

Hiri-egitura XIV. mendean

Hiribildua fundatzeko arrazoi nagusia landa-eremuetako biztanleak Gipuzkoako aitoren semeen erasoaldietatik (eta ziur aski Bizkaikoenetatik ere bai) babestea izanik, sarbide errazik ez zuten txoko batera jo zuten. Bizkaiko gainerako hiribilduak bezala, Elorrio ez dago goi edo muino batean (horrelako lekuak hobeto babesten dira), baina hala ere, leku egokia hautatu zuten: Zumelegi errekararen bihurtune itxi-itxi bat. Horrela, hiribildua ibaiaren ibilguak berak babesten zuen neurri handi batean.

Hasieran aipatu bezala, Elorrio lautada handi batean dago, eta hortaz, inolako arazo topografikorik ez zuteneguz, egitura ortogonal taxutu zuten. Bizkaiko hiribildu batzuetan (adibidez, Ondarroan) erliebearen ondorioz arazo handiak izan zituzten horretarako. Hasieran hiribildua (0,84 Ha-koa) Bizkaiko txikiena zela kontuan hartuta, argi dago Elorriok XVI. mendetik izandako garapenak ez duela zerikusirik jatorrizko fundazioarekin, beste gorabehera batzuekin baizik. Garai hartan, biztan-

leak defendatzea zen helburu bakarra, ez merkataritzari lotutako ekonomia sustatzea.

Hasierako hiribilduak bi kale paralelo zituen: Zelaiko kalea (barrualdean) eta Erreka kalea (Zumelegitik gertuago). Bien erdian kantoï estu bat zegoen, hiru bat metrokoa zabalera, kale batetik bestera joateko. Kantoïaren mutur baten ostean Durangoko bidea zegoen. Bi kaleetan, ekialdetik mendebalderako noranzkoa zutela, eguzkiak ederki jotzen zuen, eta gure lurraldea oso eguzkitsua ez dela kontuan hartuta, ezaugarri hori funtsezkoa zen etxeak berotu eta argitzeko. Gainera, ez dugu ahaztu behar garai hartako leihoak oso txikiak zirela⁴.

Bi kaleen eta kantoïaren inguruan eraiki zuten harresia, ziur aski hiri-gutuna jaso bezain laster. Biztanleak babestea hain premiazkoa zenez, Jaunak urtebeteko epea baino ez zien eman egurrezko hesia eraikitzekeo ("*una cerca de palenque*"), harrizkoa egin arte zerbait egon zedin. Harrizko harresia askoz ere hobea da, jakina, baina eraiki arte egurrezkoaren babesa izango zuten behintzat. Gainera, hesia eraikitzeak bazuen beste alde on bat ere: hiribilduaren eremuak argi eta garbi mugatzen zituen, errazagoa zen barrualdea orubeetan banatzea.

Harrizko harresia ere nahikoa azkar egingo zuten seguruenik. Egurrezkoaren aztarnak oso urriak diren arren, eraikin batzuetako oinarri eta hormetan dauden hondarretatik abiatuta badago perimetroaren ibilbidea jakiterik. Gil Abad-en ustez, Elorrioko harresiak lau atal zituen: bi ekialdetik mendebalderantz eta beste bi hegoalde-tik iparralderantz. 380 metro inguruko perimetroa omen zuen guztira.

Ekialdetik mendebaldera zihoan horma-atal bat Don Tello kaleko (lehengo Zelaiko kaleko) etxeen atzetik igarotzen zen. Gutxi gorabehera 11. zenbakian bihurgunea osatu eta iparralderantz abiatzen zen Erreka kale-

ko 34. zenbakiraino. Han, berriro noranzkoa aldatu ondoren, eraikinen atzealdetik igarotzen zen. Azkenik, Erreka kaleko 6. zenbakian 90°ko bihurgunea osatu eta Musico Arriola kalearekiko paralelo jarraitzen zuen.

Harresiak ateak ere bazituen, noski, hiribilduaren barrualdea eta inguru-tako landa-eremuak lotzeko. Elorrioko harresiaren ezaugarri bereizgarria ate-kopurua da, hain zuzen: hiribildua hain txikia izanik, ate asko zituen. Bi Erreka kalean zeuden: mendebaldekoak Berriz aldera ematen zuen eta ekialdekoak Elgeta aldera. Zelaiko kalean beste bi ate zeuden: mendebaldekoa Durangoko bidea ateratzen zen eta ekialdekoa Arrasatekora. Kantoïak ere bi ate zituen: bata iparraldean eta bestea hegoaldean. Iparraldekoak ibaia zeharkatzen zuen, eta ustez ez zen oso handia; hegoaldekoa, Durangoko bidea ateratzen zena, hiribilduko garrantzitsuenetakoa ei zen.

Harresiaren egiturari dagokionez, azterketa arkeologikoen eta hiribilduko eraikin batzuetan aurkitutako aztarnen arabera, badirudi ongi landutako bi harri-ilara zituela. Hala ere, ez zen harlanduzkoa, eta material txikiak (harri-morroiloak) eta kare-orea erabili zituzten barrutik betetzeko. 1,20 bat m-ko zabalera zuen, eta gunerik garaie-nean 5,5 m baino gehiago. Goialdean almenak izango zituen seguruenik, hobeto babesteko.

Ez da erraza harresian dorrerik ote zegoen jakitea. Azterketa arkeologikoen eta dokumentuen arabera, ez dirudi hala zenik, baina beharbada, harresitik kanpo kokatutako bi eraikin babes-elementutzat edo gotorlekutzat erabiliko zituzten: Arabio jauregia eta gaur egun Erreka kaleko 4. zenbakian dagoen dorretxea. Ez dakigu Erdi Aroan eraikin militarrek ziren ala ez, baina Gil Abad-ek dioenez, litekeena da berez Erdi Aroko dorreak izatea biak: Jaurerrian giroa baretu ondoren, berreraiki egin zituzten behar zibiletara moldatzeko. XIV. men-



HARRESIKO ATEA KANTOIAREN
AMAIERAN

ELORRIKO HARRESIAREN AURRIAK
ZUMELEGI ERREKAREN ONDOAN



deko mapan ikusten da Erdi Aroko hiribilduan bi eraikinak non zeuden.

Etxeak kale-kantoiaren arteko eremuetan eraiki zituzten. Bizkaiko gainontzeko hiribilduetan bezala, hiri-esparrua mugatu ondoren, barrualdea hedadura bereko orubeetan banatu eta etxeak egiten hasi ziren, harresia eraikitzen ari zirela. Etxeak egurrezkoak ziren, gehienek bi solairu zituzten eta atzealdean baratzea edo biltokia ezartzeko lekua.

Denboraren poderioz, harresiaren barrualdea jendez gainezka zegoenez, orube guztiak bete egin ziren, eta asko zatitu ere egin zituzten, etxe bati zegokion lekuan bi eraikitzeko⁵.

Erdi Aroko hiribilduaren bilakaera

XV. mendean Elorrioko egitura fisikoa goitik behera aldatu zen, hainbat lan eta gertakariren ondorioz. Honako hauek dira aipagarrienak: Sortzez Garbiaren elizaren eraikuntza eta 1468ko guduak eta 1480ko suteak eragindako aldaketak.

Elorriarrek, hiribildua sortu ondorengo mende batez gutxi gorabehera, Etxebarriako San Agustin elizan ase zituzten behar espiritualak.

Eliza hori 1015eko dokumentuetan agertzen da estreinako, orduantxe fundatu baitzuten Munio Sanchez jaunak eta emazte Leguncia de Echebarria andreak⁶, bertan biziko ziren fraideek beren arimen alde egin zezaten.

Elizaren inguruan liskarrak sortu ziren, baina ez elorriarrek elizkizunetara joateko kilometro bat pasatxo egin behar zutelako, Ibarra dorrekoek –hirigunearen eta elizaren arteko lurretan zegoen– bertako errentak eta onurak jasotzeko eskubidea zuten bakarrik zirela aldarrikatu zutelako baizik. Hiribildua eta jauretxekoak aurrez aurre jarri eta etengabeko gatazkak sortu ziren bien artean. Azkenean, Elorriokoek hiribilduan eliza eraikitzeko baimena eskatu zioten koroari, batetik, auzi guztiei konponbidea

emateko, eta bestetik, elizkizunak hurbilago izateko.


1459an hasi ziren eraikitzen eta XVI. mendearen amaieran bukatu zituzten lanak. Eliza harresitik kanpo egin zuten, eraikitzen hasi zirenerako barrualdea (lehen ere esan dugu txikia zela) bete-beteta zegoelako. Lanetan horrenbeste urte eman arren, XVI. mendearen hasieran jadanik erlijio-ospakizunak egiteko moduan egongo zen agian. Elorriarrek Ibaratarren aginpidetik aske geratu ziren, eta Ibaratarrek, berriz, ernegatuta, ordura arte Etxebarriko San Agustinek biltzen zituen errentak Sortzez Garbiaren elizara joan zirelako.

Hasierako asmoa nabe mailakaturik osatutako eliza gotikoa eraikitzea zen arren, horren ordez *Hallenkirche* edo “areto-erako eliza” egin zuten. Gurutze-ganga okertu ikusgarriak ditu. Dorrea XVII. mendean erantsi zioten: gotikoa da, eta oso handia⁷.

Lope Garcia de Salazarren ustez, XV. mendeko beste aldaketa bat 1468ko guduen ondorioz gauzatu zuten.

Hiribilduaren eta Ibaratarren arteko auzian berehala hartu zuten esku Bizkaiko bando-gerrako bi sendi nagusiek: Oinaztarrek eta Ganboatarrak. Hiribildutik kanpo izandako borrokaldi gogorren elorriarrek atera ziren garaile; baina erasotzaileen kanoikaden ondorioz, jatorrizko harresia oso gaizki geratu zen, eta berriro eraiki behar izan zuten. Harresi berria atzerago eramane zuten, eta lehen-goak baino zentimetro batzuk gehiago hartu zituen zabaleran. Hau da, jatorrizkoaren gainean eraiki beharrean, errondapasabideaz baliatu ziren. Ez dakigu zehatz-mehatz noiz burutu zituzten lanak, baina ziur aski XV. mendearen bukaerarako edo XVI.aren hasierarako amaituta egongo ziren⁸.

Hiribilduaren plana aldarazi zuen azken gertakaria Berant Erdi Aroan egokitu zen: 1480ko sutea, Elorrioren inoiz izan den larriena.



Beatriz Arizaga eta Sergio Martínez

ELORRIKO PARROKIA ETA HIRIGUNEA

Harresia atzera eraman eta erronda-pasabidea hartu zuten

Erdi Aro osoan Bizkaian egurrezko etxeak egin zituzten, eta horri ganbaretan lastoa, koipea eta erraz erretzeko moduko beste elementu batzuk gordetzeko ohitura gehitzen badiogu, bistakoa da zergatik egoten ziren horrenbeste sute. 1480koa ziztu bizian hedatu zen hirigunean, eta egurrezko etxe guztiak erre zituen. Zelaiko kaleko etxe-uhartea, Sortzez Garbiaren elizatik hurbilen zegoena, hutsik geratu zen, eta gerora ere ez zuten inoiz ezer eraiki, baina Durangotik Arrasaterako erregebidea bertatik igaroarazi zuten: Susoko edo goiko errebaletik ateratzen zen Arrasate aldera.

Horrela, bada, zorigaitzeko gertakari horrek eragin zuen hiribilduko egiturak izandako aldaketarik handiena: jatorrizko etxe-uharte bat suntsitzea.


Hiribilduaren hazkundera: errebalak

Hasieran, Elorrio hiribilduaren egiteko nagusia landa-eremuetako biztanleak aitoren seme gipuzkoarren erasoaldietatik babestea izan bazen ere, XV. mendetik au-

rrera eta, batik bat, XVI. mendean zehar, bando-gerra baretu ahala, Zumelegi erreka-
ren ondoko biztanleriak gero eta garrantzi handiagoa hartu zuen Durango aldeko merkataritzan, Durango, Berriz, Elgeta eta Arrasateren arteko bidegurutzetan egoteagatik. XVI. mendean, oparotasuna eta biztanleri hazkundera izan zituen ezaugarri Jaurerriak, eta hortaz, baita Elorriok ere. Gainera, harresi-barrua gainezka zegoenez, biztanle batzuk hain erraz erreko ez ziren eremu zabalagoak bilatzen hasi ziren. Horrelaxe sortu ziren errebalak.

Badirudi Erreka eta Zelaiko (Plazako kalea) kaleen jarraian zeuden eremuetan eraiki zituztela lehen etxeak. Hiribilduan nagusi zen sare-itxurako antolamendua ez zutenez hautsi, zabalgunek horiek harresi barruan zeudela uste izan dute askok; baina azken azterketen arabera ez dirudi hori horrela zenik.

Lehen zabalguneko lanak aurrera zihozela hasi omen ziren Arrasateko bidean ere Susoko edo goiko errebala egiten. Errebal hori XV. mendearen bukaerako dokumentuetan aipatzen da estreinakoz. Hiribilduaren hazkundera hiru hirigintza-elementu




ELORRIO HIRIBILDUKO ERREBALAK



SAN ROKE ERREBALA

izan zituen oinarri: Sortzez Garbiaren eliza, Gurutziagako gurutzea eta Urkizu dorrea.

Susoko edo goiko errebala egin ondoren, San Fausto, San Roke, Urarka, Ganondo eta San Joan errebalak eraiki zituzten, XVI. eta XVII. mendeetan hiribildura heltzen ziren bideen inguruan. Horrela, nekazariak babesteko sortutako herri txikia Durango aldeko bigarren hiribildu nagusia eta Bizkaiko garrantzitsuenetakoa bihurtu zen.



1468KO GUDUAREN ETA 1480KO SUTEAREN ONDORIOZ HIRIAREN PLANOAK IZANDAKO ALDAKETAK

Oharrak

1. Ikus Agirre Kerexeta, I.: *Elorrio. Aproximación a una monografía local*. Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo, 1992. 21. or.
2. Bizkaiko historiako garai ilun hori luze aztertzen dute lan honek: Arizaga, B.; García de Cortázar, J.Á.; Ríos, M.L. eta del Val, I.: *Vizcaya en la Edad Media*. I. lib. Haranburu, Donostia, 1985. 23-49. orr.
3. Ikus Labayru, E.: *Historia General del Señorío de Bizcaya*. Bilbo, 1897. Jatorrizko argitalpenaren faksimilea. La Gran Enciclopedia Vasca. Bilbo, 1968, II. lib. 379. or. Hiri-gutunaren testu osoa: Iturriza y Zabala, J.R.: *Historia General de Vizcaya y Epítome de las Encartaciones*. Rodríguez Herrero edizioa. Arturo Argital liburu-denda. Bilbo, 1967, II. lib. 256. or.
4. Elorrioko hiri-morfologiaren ezaugarri hori eta beste batzuk lan bikain honetan lantzen dira: Gil Abad, D.: *Elorrio. Urbanismo medieval de la villa*. Elorrioko Udala. Euskal Kultura Ondarearen Zentroa. Kultura Saila. Eusko Jaurlaritza. Bilbo, 1997. 71-175. orr.
5. Elorrio hiribilduko orubeen egitura luze aztertzen da lan honetan: González de Durana Isusi, J.: "Urbanismo gótico en la villa de Elorrio". *Congresos de estudios históricos. Vizcaya en la Edad Media*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1984.
6. Labayru, E.: *Historia General del Señorío de Bizcaya*. Op. cit. II. lib. 92-94. orr.
7. *Arquitectura y Desarrollo Urbano. Bizkaia*. Madril, 1997. 48. or.
8. Ikus Gil Abad, D.: *Elorrio. Urbanismo medieval de la villa*. Op. cit. 175-187. orr.

*Atal honetako argazkiak lan honetatik hartu ditugu: Agirre Kerexeta, I.: *Elorrio. Aproximación a una monografía local*. Op. cit.